

# BESTELAKO XEDAPENAK

## MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN SAILA

### 2147

*EBAZPENA, 2025eko apirilaren 29koa, Garraio Azpiegituren Zuzendariarena, zeinaren bidez onartzen baita «Altzolako saihesbidea elektrifikatzeko proiektua».*

Ebazpen honen bitartez onartzen den proiektuaren xedea «Altzolako saihesbidearen elektrifikazio-proiektuari» dagozkion jarduketak teknikoki eta ekonomikoki definitzea da. Proiektua Bilbao-Donostia zabalera metriko linearen esparruan kokatzen da, Elgoibar eta Mendaro arteko inguruan. Proiektuaren irismenari dagokionez, Karkizanoko tunelaren irteeraren eta ondoren dagoen bide bikoitzaren hasieraren arteko tartea, Altzolako trenbide bikoitzeko tunel berria eta 58+111 kilometro-puntuaren inguruan dagoen egungo bidearekiko lotunea elektrifikatzea aurreikusten da.

Proiektuan aurreikusten den katenaria CA-160ren aldaera da, ETSko zabalera metriko estandarera eta 1,5 kVdc-ko elikadurakoa.

Proiektuaren xedea da Bilbo-Donostia lineako Altzolako saihesbide berriko elektrifikazio-lanak egiteko jarduerak eta betekizunak, funtzionalak zein operatiboak, teknikoki eta ekonomikoki definitzea.

Hauek dira proiektu honetan garatutako instalazioak:

- CA-160 motako aireko kontaktu-linea, ETSk egokitua.
- Ebakigailu berrien teleagintea.

Proiektu honen xedea ez da eragina nozitu duten zerbitzuak birjartzea. Lehendik dagoen erdi-tentsioko linearen desmuntaketa bai aurreikusten da proiektu honetan.

Gaur egun, plataforma eta azpiegitura aire zabaleko bide elektrifikatu bakarrak osatzen du, Altzolako geralekutik zabalera metrikoan igarota.

Proiektu honen abiapuntuko egoera Altzolako tunel berria eraiki eta azpiegitura proiektua exekutatu ondorengo egoera izango da.

Obra zibileko proiektuan, egungo bidea banatzea aurreikusten da, Karkizanoko tunelaren irteeratik hasi eta oraintsu eraikitako Altzolako tunelaren irteeraren ondoren Donostia aldean gaur egun dagoen trenbidearekiko loturaraino.

Abiapuntuko egoeran, ezkerreko trenbidearen elektrifikazio egokitua egongo da, bigarren trenbidea sartzeko beharrezkoa den erripatuaren ondoren (eskuinaldean, Donostiarako noranzkoan). Zuinteta berri horretatik, bost zutoin gordeko dira, proiektu honen Dokumentu 2-ko (Planoak) etorkizuneko kokapen-planoan ikus daitezkeen moduan. Mantendu beharreko zutoin horiek urdinez irudikatuta daude.

Abiapuntuko egoeran, elektrifikazio-proiektu honetan aurreikusi diren zutoinak instalatzeko behar diren zimendu guztiak ere eginda egongo dira. Zimenduen tipologiari eta kokapenari buruzko informazioa obra zibileko proiektuko proiektugileei eman zaie aldezturik.

Ebakigailuen teleaginteko kableak jartzeko eta beharrezko bidegurutzeak egiteko beharrezko kanalizazioak ere eginda egongo dira.

Elektrifikazio-mailan, obra zibileko proiektuan bi eremu neutro instalatzea aurreikusten da (sekzio-isolagailuen bidez eginak) Karkizanoko tunelaren irteeran eta egungo trenbidean, Altzolako tunelaren sarrera berriaren ondorengo bihurtunean, aurreko irudian (ZN-1 eta ZN-2) erakusten den bezala. Eremu neutro horiek elektrifikazio-proiektu honetan desmuntatuko dira.

Proiektuak jarduketa hauek aurreikusten ditu, besteak beste:

- CA-160 motako aireko kontaktu-linearen instalazioa, ETSk egokitua zabalera metrikorako, 1,5 kV dc-ko elektrifikazio-sisteman, lurreratutako erreiarekin.
- 4 zubiketa-ebakigailu motorizatu eta telemandatuen instalakuntza.
- Teleaginte kableatua tunelaren iparraldeko ahotik gertu dagoen PLO berriraino.
- Altzolako geralekuaren inguruan gaur egun dauden katenariako ekipoak desmuntatzea, «Desmuntatzeen oinplanoan» adierazi bezala. Dagoen erdi-tentsioko linea desmuntatzea.

Proiektuaren irismenetik kanpo gelditzen da eragina nozitu duten zerbitzuak birjartzea. Proiektu honetan ez da desjabetzerik aurreikusi.

Proiektua egikaritzeko aurrekontua bostehun eta hirurogeita hamaika mila bostehun eta lau- rogeita bi euro eta berrogeita hamazortzi zentimokoa (571.582,58) da. Lizitazio oinarriaren aurrekontuaren zenbatekoa zortziehun eta hogeita hiru mila hogeita bat euro eta hirurogeita hamasei zentimokoa da (823.021,76), BEZa barne; eta Administrazioak horren berri izateko aurre- kontua: seihun eta laurogei mila ehun eta laurogeita hiru euro eta hogeita zazpi zentimokoa (680.183,27), BEZa kanpo.

Obrak egiteko sei (6) hilabeteko epea aurreikusten da.

Euskal Trenbide Sareko (ETS) Zerbitzu Teknikoek egiaztatu dute proiektu honek bere xedeari erantzuten diola eta Sektore Publikoko Kontratuen Legeak eta Administrazio Publikoen Kontra- tuen Legearen Erregelamendu Orokorrak eskatutako baldintzak betetzen dituela, kontrata bidez egikaritzeko behar diren alderdi nahikoak jasotzen baititu; halaber, maila formalean berrikusi dute proiektua eta berresten dute bete egiten duela Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritakoa, beharrezko diren dokumentuei dagokienez, eta halaber betetzen duela indarrean dagoen araudia, edukiari, sinadu- rei eta alderdi formalei, beharrezko kalkulu-oinarri eta -hipotesiei eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 233.1 artikuluan zerrendatutako edukiari dagokienez.

Organo honek eskumena du euskal trenbide sareko obren proiektuak onartzeko, hala xedatzen baitu 382/2024 Dekretuak, azaroaren 19koa, Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren egitura orga- niko eta funtzionala ezartzen duenaren 11.2.b) artikuluan.

Aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta oro har aplikatu beharrekoak ikusita, hau

#### EBATZI DUT:

Lehenengoa.– «Altzolako saihezbidea elektrifikatzeko proiektua» onartzea. Lizitazioaren oina- rrizko aurrekontua, BEZa barne, zortziehun eta hogeita hiru mila hogeita bat euro eta hirurogeita hamasei zentimokoa da (823.021,76), eta obrak egiteko epea sei (6) hilabetekoa izango dela aurreikusi da.

Bigarrena.– Eraikuntza proiektu hau onartzeak berekin dakar obrak onura publikokoak edo interes sozialekoak direla deklaratzeko, okupatzeko beharra adieraztea eta dagokion Eraikuntza proiektuaren beraren eranskinean zerrendatuta dauden erasandako ondasunak eta eskubideak lehenbailehen okupatu behar direla adieraztea.

Ebazpen hau ez da behin betikoa administrazio-bidean, eta, beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsua aurkez diezaiokete Azpiegituren eta Mugikortasun Jasangarriaren sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Errekurtso hori organo honi edo Azpiegituren eta Mugikortasun Jasangarriaren sailburuordeari bidali beharko zaio.

Administrazio publikoek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute, bi (2) hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien aretoan, hargatik aldeztu aurretik errekerimendua egitea eragotzi gabe, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan zehaztutako moduan eta epean.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 29a.

Garraio Azpiegituren zuzendaria,  
MARÍA DOLORES DE JUAN DE MIGUEL.